LESAKAKO HIRIKO UDALA
(NAFARROA)

AYUNTAMIENTO DE LA
VILLA DE LESAKA
(NAVARRA)

Ref.:ADBy

**BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN PLEGUA, MUSIKA ESKOLAKO KLASEAK EMATEKO KONTRATUA ADJUDIKATZEKO, PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ (2015-2016 IKASTURTEA)**

**1) KONTRATUAREN XEDEA.**

Kontratu honen xede da Lesakako Musika Eskolako klase guziak emateko kontratua adjudikatzeko baldintza ekonomiko-administratiboak ezartzea.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 4.3 artikuluak ezarritakoaren arabera, laguntza-kontratu bat da. Eta horrela ageri da martxoaren 30eko 29/2009 Foru Dekretuko II Eranskinean. 24 (hezkuntza) eta 26 (kultura) kategorietan sartua da.

Ondoren ezartzen dira Udalaren eta kontratu honen enpresa adjudikaziodunaren betebeharrak.

**1.1 Udalaren betebeharrak.**

A – Musika Eskola kudeatuko du. Bereziki honako alderdi hauek:

B – Matrikulazio kanpaina egin.

C – Zerbitzuaren tarifak ezarri.

D – Tarifa horiek kobratu.

E - Nafarroako Gobernuari diru-laguntzak eskatu.

F – Enpresa adjudikaziodunak udal lokalak erabili nahi baditu, Udalak utziko dizkio beharrezkoak direnak, eta horiek behar bezalako ekipamendua izanen dute.

G – Musika Eskolako aurrekontua onartu.

**1.2 – Adjudikaziodunaren betebeharrak.**

A - Klaseak emanen dituzten irakasleak kontratatu.

B – Irakasle plaza hutsak bete.

C – Karguak eta hizkuntza irizpideak. Zuzendaria eta Ikasketa-burua izendatu, jarduera akademikoetarako soilik.

**PLIEGO DE CONDICIONES ADMINISTRATIVAS PARA LA ADJUDICACIÓN, MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO, DEL CONTRATO PARA IMPARTIR LAS CLASES DE LA ESCUELA DE MÚSICA (CURSO 2015- 2016).**

**1) OBJETO DEL CONTRATO.**

Es objeto del presente contrato el establecimiento de las condiciones económico-administrativas con arreglo a las cuales ha de llevarse a cabo la contratación para impartir todas las clases correspondientes a la Escuela de Música de Lesaka

Se trata, conforme a lo establecido por el artículo 4.3 de la Ley Foral 6/2006, de Contratos Públicos, de un contrato de asistencia. Como tal figura en el Anexo II B del Decreto Foral 25/2009, de 30 de marzo. Está comprendido en las categorías 24 (educación) y 26 (cultura).

Procede establecer, a continuación, las obligaciones del Ayuntamiento y las de la empresa adjudicataria del presente contrato:

**1.1 - Obligaciones del Ayuntamiento.**

A - Gestionará la Escuela de Música, especialmente en los siguientes aspectos:

B - Realizar la campaña de matriculación.

C - Establecer las tarifas del servicio.

D - Proceder al cobro de las mismas.

E - Solicitud de subvenciones al Gobierno de Navarra.

F - En caso de que la empresa adjudicataria desee utilizar locales municipales, el Ayuntamiento facilitará aquellos que sean precisos, que contarán con el equipamiento necesario.

G - Aprobar el presupuesto de la Escuela de Música.

**1.2 – Obligaciones del adjudicatario.**

A - Contratación del profesorado que impartirá las clases.

B - Provisión de vacantes del mismo.

C - Cargos y requisitos lingüísticos. Nombramiento de un Director y un Jefe de Estudios para las actividades puramente

LESAKAKO UDALA www.lesaka.net - e-posta: udala@lesaka.net - Tel: 948 637 005 - Faxa. 948 627 523 - Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (NAFARROA)

LESAKAKO UDALA * AYUNTAMIENTO DE LESAKA *

Hizkuntza irizpideak.

Musika Eskolan arituko diren langile guztiek euskaraz jakitea. Langileen hizkuntza eskakizunei dagokienez, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak proposatutakoak bete beharko dituzte (*Bortzirietako toki entitateen plantilla organikoetako lanpostuei ezarri beharreko hizkuntza eskakizunak* txostena, 2012/08/27). Irakasle lanetan nahiz administrazio jarduеretan arituko diren langileen kasuan, mankomunitateak proposaturiko 3. jakite maila izan beharko dute (hau da, idatziz nahiz ahoz euskarazko C1 maila izan).

Kontratua esleitu baino lehen enpresak egiaztatu beharko du zerbitzua emanen duten langileek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emanen duen pertsona berririk sartzen bada, horiek ere eskaturiko hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izanen dira:

1. Zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

2. Administrazioak erabakitako proba egitea.

- Oro har eskolak euskaraz emanen dira, betiere erabiltzaileen hizkuntza eskubideak kontuan hartuz.

- Halaber, herritarrekin ahozko harremana euskaraz izanen da (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan...), betiere hizkuntza ofizialetako hiztunen hizkuntza eskubideak bermatuta.

- Enpresa esleipendunak udalaren hizkuntza araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan, bai ahozkoetan (bilerak, kontsultak, aurkezpenak...) bai idatzizkoetan (kontratuak, fakturak, txostenak...). Beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izanen dira.

- Enpresa esleipendunak hizkuntza

académicas.

Requisitos lingüísticos.

Todos los trabajadores de la Escuela de Música deberán conocer el euskara. En lo que se refiere al perfil lingüístico de los trabajadores, deberán cumplir los propuestos por la Mancomunidad de Euskara de Bortziriak (informe de 27/08/2012, *exigencias lingüísticas a establecer en los puestos de trabajo de las plantillas orgánicas de las entidades locales de Bortziriak).* En los casos de los trabajadores que realicen labores de administración y docencia deberán disponer del nivel 3 de conocimiento propuesto por la mancomunidad (esto es, deberán poseer el nivel C1 de euskara tanto en conocimiento oral como en escrito).

Previamente a adjudicar el contrato, la empresa deberá justificar que los trabajadores que van a ofrecer el servicio disponen del nivel lingüístico exigido. Igualmente, si posteriormente a la contratación de la empresa, se incorpora personal nuevo, éstos también deberán justificar el nivel de conocimiento del idioma.

Para justificar la capacitación lingüística, se podrán utilizar las siguientes vías:

1 – Presentación de documento que acredite el cumplimiento de la competencia lingüística del personal que va a ofrecer el servicio.

2 – Realizar la prueba aprobada por la administración.

- En general las clases se impartirán en euskara, teniendo siempre en cuenta los derechos lingüísticos de los usuarios.

- Asimismo, las relaciones orales con los ciudadanos se realizará en euskara (primera palabra, por teléfono, en el contestador, atención personalizada, en los altavoces, en las reuniones…) garantizando en todo momento los derechos lingüísticos de las lenguas oficiales de los hablantes)

- La empresa adjudicataria deberá actuar de acuerdo a la normativa lingüística del Ayuntamiento en todas las actividades objeto del contrato, tanto en lo oral (reuniones, consultas, presentaciones…), como en las escritas (contratos, facturas, informes…). Por lo tanto, las relaciones de la empresa con el Ayuntamiento, tanto orales como escritas, se desarrollarán en el lenguaje de trabajo de Ayuntamiento.

- La empresa adjudicataria en el ámbito

LESAKAKO UDALA * AYUNTAMIENTO DE LESAKA

TOBERA MUSIKA IHARDUERAK, S.L.L.
C.I.F. B-31855802
Plaza Berria, 4
31770 LESAKA (Nafarroa)

LESAKAKO UDALA www.lesaka.net - e-posta: udala@lesaka.net - Tel: 948 637 005 - Faxa. 948 627 523 - Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (NAFARROA)

paisaiaren alorrean jarri beharreko errotulu, kartel, seinale eta antzeko elementuak ele biz egonen dira beti ere euskarari lehentasuna emanez, eta, betiere udalarekin aitzinetik adostuta.

- Herritarrentzako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, fakturak eta bertzelako agiriak...) ele biz eginen dira, beti ere euskarari lehentasuna emanez,, eta hizkuntza ofizialetako hiztunen hizkuntza eskubideak bermatuta.

D – Musika Eskolako urteko aurrekontuak prestatu eta Kontseilu Sektorialari proposatu.

E – Ikasturtearen programazioa eta planifikazioa diseinatu Kontseilu Sektorialean onartzeko.

F – Irakasleen soldatak ordaindu.

G – Irakasleen gizarte segurantzara kotizatu.

H – Ordutegia proposatu Kontseilu Sektorialari.

I – Kontzertuak eta gainerako jarduera kulturalak eta akademikoak antolatu.

J – Bere kontura izanen da hainbat zerbitzu kontratatzea (telefonoa, internet, ...), baina Udalak ematen ahal dizkio hala iruditzen bazaio.

K – Urtero Udalari aurkeztu beharko zaizkio ustiapen-kontuak. Ustiapen-kontuan langileen gastuak adierazi beharko dira banakatuta.

L – Udalak edozein momentutan eskatu ahal izanen du zerbitzuko kontuen auditoria, bai berez bai espezializaturiko hirugarren baten bitartez, eta kostu hori zerbitzuaren ustiapenaren kontura izanen da.

**2 – EMAN BEHARREKO IKASGAIAK.**

2015-2016 ikasturtean honako ikasgaiak emanen dira:

- Musika eta mugimendua.
- Hizkuntza musikala.
- Abesbatza
- Musika tresna taldea
- Akordeoia
- Pianoa
- Tronpeta
- Zeharkako txirula

del paisaje lingüístico a colocar en los rótulos, carteles, señales y elementos similares a utilizar deberán estar en bilingüe dándole prioridad siempre al euskara y previo consenso con el Ayuntamiento.

- Las notificaciones y comunicaciones a vecinos (impresos, notas, avisos, facturas y otros documentos…), se realizarán en bilingüe, dándole siempre prioridad al euskara y garantizando los derechos lingüísticos de los hablantes de las lenguas oficiales.

D- Preparar y proponer los presupuestos anuales de la Escuela de Música al Consejo Sectorial.

E - Diseñar la programación y planificación del Curso para su aprobación en el Consejo Sectorial.

F - Abono de las nóminas de los profesores.

G - Cotización a la Seguridad Social de los mismos.

H - Proponer los horarios al Consejo Sectorial.

I Organización de conciertos y demás actividades culturales y académicas.

J – Correrán a su cargo la contratación de servicios (teléfono, Internet,…), aunque el Ayuntamiento puede facilitarlos si lo estima conveniente.

K – Anualmente deberán presentarse las cuentas de explotación al Ayuntamiento. En la cuenta de explotación se deberán especificar los gastos de personal desglosados.

L – El Ayuntamiento podrá pedir en cualquier momento la auditoria de las cuentas del servicio, por si mismo o por un tercero especializado, cargando dicho coste a la explotación del servicio.

**2º) ASIGNATURAS A IMPARTIR.**

Durante el curso 2015-2016, se impartirán las siguientes asignaturas:

Música y Movimiento
Lenguaje Musical
Coro
Conjunto instrumental
Acordeón
Piano
Trompeta
Flauta travesera

LESAKAKO UDALA * AYUNTAMIENTO DE LESAKA *

| | |
|---|---|
| - Klarinetea | Clarinete |
| - Saxofoia | Saxofón |
| - Txistu | Txistu |
| - Gitarra | Guitarra |
| - Trikitixa | Trikitixa |
| - Perkusioa | Percusión |
| - Ganberako musika | Música de Cámara |
| - Harmonia | Armonía |
| - Kultura musikala | Cultura Musical |
| - Teklatuak | Teclados |
| - Pop-Rock taldea | Grupo Pop-Rock |
| - Herriko musika tresnak | Instrumentos Populares |
| - Helduen tailerra | Taller de adultos |

Hurrengo ikasturteetarako, ikasgai berriak sartzea edo gaur egun ematen direnetatik kentzea ikaslerik ez izateagatik, Musika Eskolako Kontseilu Sektorialaren erabakia hartu ondoren eginen da.

Plegu honekin batera doan eranskin batean ikusten dira zein izan diren azken hiru ikasturteetan eman diren ikasgaiak, ikasgai bakoitzean zenbat ikasle matrikulatu diren eta baita irakasle bakoitzak eman dituen ordu kopurua ere.

Para los próximos cursos, la inclusión de nuevas asignaturas o la exclusión por falta de alumnos de las actualmente impartidas, se realizará previo acuerdo del Consejo Sectorial de la Escuela de Música.

En un anexo al presente Pliego se incluyen cuales han sido, durante los tres últimos cursos, las asignaturas impartidas, el número de alumnos matriculados en cada asignatura, así como el número de horas impartidas por cada profesor.

**3 – LIZITAZIO PREZIOA**

Ehun eta hogei mila eurokoa izanen da (120.000 €), urte baterako. Zerbitzua Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaintzetik libre dago, Espainiako hezkuntza sistemako ikasketa planetan sarturiko gaiak direlako.

**3º) PRECIO DE LICITACIÓN**

Será de ciento veinte mil euros (120.000 €) por el periodo de un año. El servicio se halla exento del pago del Impuesto sobre el Valor Añadido, por tratarse de materias incluidas en los planes de estudio del sistema educativo español.

**4 – AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.**

Ireki den prozeduran parte hartzeko proposamenak (6/2006 Foru Legearen 64 art.), kartazal itxian aurkeztuko dira Lesakako Udaleko Erregistro Orokorrean (Plaza Zaharra, 1).

Plegu bakar honetan, ondoren adierazten diren bertze hiru kartazal sartuko dira. Horiek guztiak, itxita egon beharko dute, eta kanpoaldean adierazi beharko da zein kontratura aurkezten diren eta lizitatzailearen identifikazioa. Azken hiru kartazaletan adieraziko da, halaber, ea "dokumentazio pertsonala", "dokumentazio teknikoa" edo "proposamen ekonomikoa" den.

1. KARTAZALEAN, "DOKUMENTAZIO PERTSONALA" izenekoa, honako hau:

**4º) DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR.**

Las proposiciones para tomar parte en el procedimiento abierto (art. 64 de la Ley Foral 6/2006) se presentarán en pliego cerrado en el Registro general del Ayuntamiento de Lesaka (Plaza Zaharra nº 1).

En este único pliego, se incluirán los otros tres sobres que se describen a continuación. Todos ellos deberán estar cerrados, señalándose en su exterior el contrato para el que se presentan y la identificación del licitador. En los tres últimos sobres se indicará igualmente si se trata del "documentación personal", "documentación técnica" o el de "proposición económica".

En el SOBRE Nº 1, denominado DOCUMENTACIÓN PERSONAL, se incluirá:

LESAKAKO UDALA * AYUNTAMIENTO DE LESAKA

TOBERA MUSIKA IHARDUERAK, S.L.L.
C.I.F. B-31855802
Plaza Berria, 4
31770 LESAKA (Nafarroa)

sartuko da:

A) Nortasuna egiaztatzeko agiriak:

- Banakakoentzat, beharrezkoa izanen da aurkeztea NAN-aren kopia notarioren edo administrazioaren bidez egiaztaturikoa edo hura legez ordezkatzen duen dokumentuarena.
- Enpresa pertsona juridikoa izanez gero, aurkeztuta sortzeko edo, hala bada, aldatzeko eskritura, behar den bezala inskribatua Merkataritza Erregistroan.
- Notario-ahalordea, proposamena bertze pertsona edo entitatearen izenean aurkezten bada. Enpresa pertsona juridikoa izanez gero, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatua egon beharko du.

B) Justifikantea, Udal diruzaintzan lizitazio-aurrekontuaren %2ari dagokion kopurua (2.400 €) ordaindu izanarena, behin-behineko berme gisa. Hori eskudirutan, Nafarroako Zorraren tituluetan edo erregelamenduzko abalaren bitartez jarri ahal izanen da. Fidantza hau itzuliko zaie adjudikatzen ez zaien lizitatzaileei.

C) Gizarte Segurantzako Lurralde Diruzaintzaren egiaztagiria, zerbitzu sozialeko kuotetan egunera dagoela adierazten duena, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den eguna baino gehienez 30 egun natural lehenago egina.

D) Zerga-beharretan egunera dagoela adierazten duen justifikantea, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino gehienez 30 egun natural lehenago egina.

E) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan egunera dagoela adierazten duen egiaztagiria.

F) Aitorpena, enpresa lizitatzailearena edo hala bada bere ahaldun edo ordezkariarena, non baieztatuko den bere ardurapean, ez enpresa horrek ezta bere administratzaileek ere, ez daudela sartuta indarrean dagoen ordenamenduan adierazten diren inolako ezintasun edo bateraezintasun kasuetan.

2. KARTAZALEAN, DOKUMENTAZIO TEKNIKOA izenekoan, honako agiri hauek sartu beharko dira:

A – Enpresaren antolamendua.

B – Langileen zerrenda, dagozkien

A) Documentos acreditativos de la personalidad:

- Para las personas individuales serán necesarias la presentación de la copia autentificada notarial o administrativa de D.N.I. o del documento que lo sustituye reglamentariamente.
- Si la empresa fuera persona jurídica, mediante la presentación de la escritura de constitución o modificación en su caso, debidamente inscrita en el Registro Mercantil.
-Poder notarial si la proposición se presenta en nombre de otra persona o sociedad. Si la empresa fuese persona jurídica, el poder deberá figurar inscrito en el Registro Mercantil.

B) Justificante acreditativo de haber ingresado en la Tesorería municipal el equivalente al 2% del presupuesto de licitación (2.400 €) en concepto de garantía provisional, constituida en metálico, títulos de Deuda de Navarra o aval en forma reglamentaria. Esta fianza será devuelta a los licitadores que no resulten adjudicatarios.

C) Certificado expedido por la Tesorería Territorial de la Seguridad Social, de hallarse al corriente en el pago de las cuotas de los seguros sociales, con una antelación no superior a 30 días naturales a la fecha en que expire el plazo para la presentación de las ofertas.

D) Justificante de encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, expedido con una antelación no superior a 30 días naturales a la fecha en que expire el plazo para la presentación de las ofertas.

E) Certificado de hallarse al corriente en el pago del Impuesto de Actividades Económicas.

F) Declaración de la empresa licitadora, o en su caso de su apoderado o representante, en la que se afirme bajo su responsabilidad que ni dicha empresa ni sus administradores están incursos en ninguna de las causas de incapacidad o incompatibilidad señaladas en el ordenamiento vigente.

EN EL SOBRE Nº 2, denominado de DOCUMENTACIÓN TÉCNICA, deberán incluirse los siguientes documentos:

A - Organización de la empresa.

B - Relación de los miembros de su

LESAKAKO UDALA www.lesaka.net - e-posta: udala@lesaka.net - Tel: 948 637 005 - Faxa: 948 627 523 - Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (NAFARROA)

LESAKAKO UDALA * AYUNTAMIENTO DE LESAKA

titulazio eta esperientziarekin. Era berean adieraziko da euskara maila nahikoa duten ala ez.

C – Jardueraren proiektua. Hor adieraziko da zehatz-mehatz jarduera nola egin behar duten.

3. KARTAZALEAN, DOKUMENTAZIO EKONOMIKOA izenekoan, proposamen ekonomikoa sartu beharko da, Plegu honen bukaeran ikusten den ereduari egokitua.

Proposamen horrek ezin izanen du gainditu, inolaz ere, lizitazio prezioa.

Aurkezten diren agiriak jatorrizkoak edo notarioren bidez edo administrazio bidez egiaztaturiko fotokopiak izan beharko dute.

Eskatzen diren dokumentuak ez aurkezteak edo oker aurkezteak berarekin ekarri du lizitatzailearen onartezintasuna, salbu mahaiak akatsak antzemanen balitu aurkezturiko dokumentazioan eta orduan eman ahal izanen du, hala iruditzen bazaio, gehienez bortz eguneko epea lizitatzaileak okerra zuzen dezan.

**5 – PLEGUAK IREKITZEA.**

Pleguak kontratazio-mahaiak irekiko ditu. Mahai horren buru alkate jauna edo berak izendaturiko ordezkari bat izanen da. Mahaikideak Udaleko Kultura Batzordeko kideak izanen dira.

Idazkari gisa, botorik gabe, Udalarena ariko da.

Mahaiak lehenbiziko 1. kartazala irekiko du. Hauek izanen dira faseak:

1 – Dokumentazio pertsonala kalifikatu (1. kartazala), egiaztatzeko lizitatzaileek betetzen dituztela lizitazio-prozeduran onartua izateko baldintzak.

2 – Proposamen teknikoa ireki eta aztertu (2. kartazala), esleipen-irizpideen puntuak adjudikatzeko.

Horretarako bidezko txosten teknikoak eskatu ahal izanen dira.

3 – Proposamen ekonomikoak ireki (3. kartazala). Horrela, eta ordurako ezagututa aitzineko fasean emaniko baremoa, jakinen da nor izanen den adjudikazioduna.

Proposamen ekonomikoak ekitaldi publikoan irekiko dira.

personal, con sus correspondientes titulaciones y experiencia. Se indicará igualmente si tienen el nivel necesario de euskera.

C - Proyecto de actividad, donde se indique de forma detallada la forma en que tienen pensada ejercer la misma.

En el SOBRE Nº 3, denominado de DOCUMENTACIÓN ECONÓMICA, se incluirá la proposición económica ajustada al modelo que se adjunta al final de este Pliego.

La misma no podrá superar, en ningún caso, el precio de licitación.

Los documentos que se presentan deberán ser originales o fotocopias autentificadas, notarial o administrativamente.

La omisión de los documentos exigidos, así como su presentación defectuosa, determinará la inadmisibilidad del licitador, salvo si la Mesa observara defectos en la documentación presentada, en cuyo caso podrá conceder, si lo estima conveniente, un plazo no superior a cinco días para que el licitador subsane el error.

**5º) APERTURA DE PLIEGOS.**

La apertura de los pliegos será realizada por la Mesa de Contratación, que estará presidida por el Sr. alcalde o miembro de éste en quien delegue. Serán vocales los miembros de la Comisión de Cultura del Ayuntamiento

Actuará como secretario, sin voto, el de la Corporación.

La Mesa procederá en primer lugar a la apertura del sobre nº 1. Se observarán las siguientes fases:

1 - Calificación de la documentación personal (sobre nº 1), para comprobar que se reúnen las condiciones para ser admitido al procedimiento de licitación.

2 - Apertura y estudio de la propuesta técnica (sobre nº 2), con el fin de adjudicar los puntos de los criterios de adjudicación.

Para ello podrán solicitarse los informes técnicos oportunos.

3 - Apertura de las proposiciones económicas (sobre nº 3), de tal manera que ya conocido el baremo otorgado en la fase anterior se conozca el adjudicatario.

La apertura de la proposición económica se realizará en acto público.

AYUNTAMIENTO DE LESAKA

TOBERA MUSIKA IHARDUERAK, S.L.L.
C.I.F. B-31855802
Plaza Berria, 4
31770 LESAKA (Nafarroa)

LESAKAKO UDALA www.lesaka.net - e-posta: udala@lesaka.net - Tel: 948 637 005 - Faxa. 948 627 523 - Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (NAFARROA)

**6 – ESLEIPENA**

Udaleko dagokion organoak ahalmena izanen du proposamen merkeenari adjudikatzeko kontratua edo lizitazioa hutsik uztekoa. Adjudikazioduna aukeratzeko, honako irizpide hauek erabiliko dira:

1 – Eskaintza ekonomikoa: 0tik 30 puntura.

2 – Plantillaren ezaugarriak (titulazioa, ikastaroak, bertze ezaguerak, eta abar): 0tik 30 puntura.

3 – Lan proiektua: 0tik 40 puntura.

Eskaintza ekonomikoari dagozkion puntuak kalkulatzeko, honako baremo hau aplikatuko da:

* Lizitatzailerik merkeena: 30 puntu (baja A).

* Gainerako lizitatzaileak: 30 – 2 (baja A – lizitatzailearen baja).

**6º) ADJUDICACIÓN.**

El órgano correspondiente del Ayuntamiento tendrá la facultad de adjudicar el contrato a la proposición más ventajosa o declarar desierta la licitación. Para la selección del adjudicatario, se aplicarán los siguientes criterios:

1 - Oferta económica: de 0 a 30 puntos.

2 – Características de la plantilla (titulación, cursillos, otros conocimientos, etc.): de 0 a 30 puntos.

3 – Proyecto de trabajo: de 0 a 40 puntos.

Para el cálculo de los puntos correspondientes a la oferta económica, se aplica el siguiente baremo.

* Licitador mas económico: 30 puntos (baja A).

* Demás licitadores: 30 - 2 (baja A - baja licitador).

**7 – KONTRATUA FORMALIZATU.**

Kontratua adjudikazioa egiten den egunetik hurrengo 30 egunen barruan eginen da, notarioren edo administrazioaren bidez eginiko dokumentuan.

**7º) FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO.**

El contrato se formalizará dentro de los 30 días siguientes a la adjudicación, mediante documento que podrá ser notarial o administrativo.

**8 – BEHIN BETIKO FIDANTZA**

Adjudikaziodun suertatzen den lizitatzaileak egiaztatu beharko du behin betiko fidantza jarri duela adjudikazio-prezioaren %4ko zenbatekoagatik (kontratuak hartzen duen epealdi guziari dagokiona), adjudikazioa ofizialki jakinarazten zaion egunetik 15 eguneko epean. Fidantza jarri ahal izanen da eskudirutan, Nafarroako Zorraren titulutan edo erregelamenduzko abalaren bitartez.

Behin betiko fidantza hori ez bada jartzen adjudikaziodunari egozteko moduko arrazoiengatik, Udaleko dagokion organoak suntsitutzat joko du kontratua. Eta bertze adjudikazio bat egin ahal izanen du bertze kontratista baten alde, betiere kontratazio mahaiak haren dokumentazioa ontzat emana badu.

Adierazi den fidantza kontratua beteko delako berme gisa erabiliko da eta balioko du kontratuak irauten duen artean ongi egite eta funtzionamenduaren berme bisa.

**8º) FIANZA DEFINITIVA.**

El licitador que resulte adjudicatario, deberá acreditar la constitución de la fianza definitiva por el importe del 4% del precio de adjudicación (correspondiente al periodo total al que se refiere el contrato), en el plazo de 15 días a contar desde la fecha de notificación oficial de la adjudicación. La fianza podrá constituirse en metálico, en títulos de la Deuda de Navarra o aval en forma reglamentaria.

De no depositarse la fianza definitiva por causas imputables al adjudicatario, el órgano correspondiente del Ayuntamiento declarará resuelto el contrato, pudiendo hacer nueva adjudicación a favor de un nuevo contratista, cuya documentación hubiera sido dada por correcta por la mesa de contratación.

La fianza señalada responderá al cumplimiento del contrato y servirá de garantía del buen hacer y funcionamiento mientras dure el contrato.

**9 – KONTRATUAREN HASIERA.**

**9º) INICIO DEL CONTRATO.**

LESAKAKO UDALA * AYUNTAMIENTO DE LESAKA *

Klaseak 2015eko urrian hasiko dira ematen.

Derrigorrezko hezkuntza sisteman ezarritakoari jarraiki, klaseak urtero urritik hurrengo urteko ekaina arte emanen dira.

**10 – IRAUNALDIA.**

6/2006 Foru Legearen 4.3 artikuluak honako hau xedatzen du: "Kontratu hauen indarraldia lau urtekoa izanen da, gehienez ere, haien luzapen guztiak barne…"

Beraz, kontratuaren indarraldia 2016ko ekainaren 30ean amaituko da.

Hurrengo urteetarako kontratuaren urteroko luzapenak eginen dira, era automatikoan, baldin eta aldeetako edozeinek kontrakoa adierazten ez duen dagokion urtearen martxoaren 30a baino lehen.

Dena dela, kontratua eta haren luzapenak ez dira inolaz ere indarrean egonen 2019ko ekainaren 30etik aitzinera, urte horretan bertze lizitazio bat egin beharko baita.

**11 – KONTRATUAREN SUNTSIARAZPENA.**

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak honako hauek izanen dira:

a) Kontratista indibiduala hil edo ez gaiturik geratzea edo sozietate kontratistaren nortasun juridikoa iraungitzea.

b) Porrot-adierazpena, ordainketa-etendura, hartzekodunen esku-hartzea edo kaudimengabeziaren deklarazioa edota kita eta itxaroteko akordioa.

c) Udala eta kontratista ados jartzea.

d) Kontratistak, behin betiko bermea ez jartzea ezarritako epean, edo berme bereziak, edo haren osagarriak ez jartzea, Legean aurreikusten diren kasuetan eta kontratua ez sinatzea ezarritako epean.

e) Udalak ez ordaintzea Legeak agintzen dituen epeetan.

f) Kontratuko gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

g) Indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen gainerako suntsitzeko zioak.

**12 – KONTRATUA**

Las clases se comenzarán a impartir en octubre de 2015.

Siguiendo lo establecido en el sistema de educación obligatoria, las clases se impartirán cada año desde octubre hasta junio del ejercicio siguiente.

**10º) DURACIÓN.**

El artículo 4.3 de la Ley Foral 6/2006 establece que "Estos contratos tendrán un plazo de vigencia de cuatro años, incluidas todas sus prórrogas..."

En consecuencia la vigencia del contrato finalizará el día 30 de junio de 2016.

Para años sucesivos se producirán prórrogas anuales del mismo, de forma automática, salvo que cualquiera de las partes manifieste lo contrario con anterioridad al día 30 de marzo del año correspondiente.

En todo caso, el contrato y sus prórrogas no podrán estar vigentes a partir del 30 de junio de 2019, en que deberá procederse a realizar una nueva licitación.

**11º) RESOLUCIÓN DEL CONTRATO.**

Serán causas de resolución del contrato:

a) La muerte o incapacidad sobrevenida del contratista individual o la extinción de la personalidad jurídica de la sociedad contratista.

b) La declaración de quiebra, de suspensión de pagos, de concurso de acreedores o de insolvente fallido en cualquier procedimiento o el acuerdo de quita y espera.

c) El mutuo acuerdo entre el Ayuntamiento y el contratista.

d) La falta de prestación por el contratista de la garantía definitiva o las especiales o complementarias de aquella en el plazo en los casos previstos en la Ley y la no formalización del contrato en plazo.

e) La falta de pago por parte del Ayuntamiento, en los plazos señalados por la Ley.

f) El incumplimiento de las restantes obligaciones contractuales esenciales.

g) Las demás causas de resolución establecidas por la normativa vigente.

**12º) TRAMITACIÓN DE LA**

LESAKAKO UDALA ★ AYUNTAMIENTO DE LESAKA ★
TOBERA MUSIKA IHARDUERAK, S.L.L.
C.I.F. B-31855802
Plaza Berria, 4
31770 LESAKA (Nafarroa)

**SUNTSIARAZTEKO TRAMITAZIOA.**

Kontratua suntsiarazteko aintzat hartuko da ekainaren 9ko Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 181. artikuluak xedatzen duena.

Kontratua suntsiarazten bada adjudikaziodunari egozteko moduko arrazoiengatik, konfiskatuko zaio, beti, jarritako fidantza eta Udalari kalte-ordaina eman beharko dio eraginiko kalte-galerengatik, hauen zenbatekoa fidantzaren zenbatekoa gainditzen badu.

**13 – ORDAINKETAK**

Adjudikazioaren xede den diru-kopuru guziaren ordainketa urtero horrela eginen da:

- Irailak 15: %5
- Urriak 1: %31
- Ilbeltzak 1: %32
- Apirilak 1: %32

**14 – KOORDINAZIOA UDALAREKIN.**

Udal Musika Eskolako Kontseilu Sektorialaren bitartez eginen da. Haren estatutuak 16. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira, 2005eko otsailaren 7koan.

**15 – PREZIOEN BERRIKUSTEA.**

Lizitazio-prezioa kalkulatu da Musika Eskolako 2014-2015 ikasturtean izaniko jardueraren arabera.

Hurrengo urteetarako aipatu zifra urtero berrikusiko da, honako bi faktore hauek aplikatuta:

- Aitzineko ikasturtearekiko lan-orduen handitze edo murriztea.

- Nafarroan indarrean dagoen KPIa aplikatzea.

**16 – ARAUBIDE JURIDIKOA**

Klausula administratibo hauek arautzen duten kontratuak honakoak bete beharko ditu: 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu Publikoei buruzkoa; 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Administrazio Lokalari buruzkoa (224. artikulutik 232.era), eta aplikagarriak diren gainerako erregelamenduzko xedapenak.

**RESOLUCIÓN DEL CONTRATO.**

La resolución del contrato se atendrá a lo establecido en el artículo 181 de la Ley Foral 6/2006, de 9 de junio, de Contratos Públicos.

Si el contrato se resuelve por causas imputables al adjudicatario, le será incautada, en todo caso, la fianza depositada y deberá indemnizar al Ayuntamiento de los daños y perjuicios en cuanto el importe de los mismos exceda de aquella.

**13º) PAGOS**

El pago de la cantidad total objeto de adjudicación, se realizará todos los años de la siguiente manera:

- 15 de septiembre: 5 %.
- 1 octubre: 31 %.
- 1 enero: 32 %.
- 1 abril: 32 %.

**14º) COORDINACIÓN CON EL AYUNTAMIENTO**

Se realizará mediante el Consejo Sectorial de la Escuela Municipal de Música, cuyos Estatutos han sido publicados en el Boletín Oficial de Navarra nº 16, de 7 de febrero de 2005.

**15º) REVISIÓN DE PRECIOS**

El precio de licitación ha sido calculado de acuerdo con la actividad de la Escuela de Música correspondiente al curso 2014-2015.

Para ejercicios siguientes dicha cifra será revisada anualmente, mediante la aplicación de dos factores:

- El aumento o disminución de las horas de trabajo en relación al curso anterior.

- La aplicación del IPC vigente en Navarra.

**16º) RÉGIMEN JURÍDICO.**

El contrato a que se refieren las presentes cláusulas administrativas se regirá por la Ley Foral 6/2006, de 9 de junio, de Contratos Públicos, por Ley Foral 6/1990, de 2 de julio de la Administración Local de Navarra (artículos 224 a 232) y por las demás disposiciones reglamentarias que le sean de aplicación.

LESAKAKO UDALA www.lesaka.net - e-posta: udala@lesaka.net - Tel: 948 637 005 - Faxa. 948 627 523 - Plaza Zaharra, 1 - 31770 LESAKA (NAFARROA)

LESAKAKO UDALA * AYUNTAMIENTO DE LESAKA *

LEGEZKO AIPAMENAK:

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, batetik, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluan ezarri bezala: "Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren izaera izanen du eskualde euskaldunetan", eta bestetik, eta Euskararen erabilera normalizatzeko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean, Euskarari buruzkoan, eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, udalak onartutako erabilera planean

MENCIONES LEGALES

Este contrato deberá cumplir obligatoriamente la normativa de la oficialidad del bilingüismo, por un lado, de acuerdo a lo establecido en el artículo 9 de la Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra, que dice: "El castellano es la lengua oficial de Navarra. El vascuence tendrá también el carácter de lengua oficial en las zonas vascoparlantes de Navarra", y por otro, para la normalización del uso del euskara, conforme a lo establecido por la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vascuence, normativa que regula su desarrollo, entre otros, el plan de utilización aprobado por el Ayuntamiento.

JARRAIPENA

Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeari jarraiki, kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

SEGUIMIENTO

De conformidad con lo establecido en la Ley Foral 6/2006, de Contratos Públicos de Navarra, el responsable del contrato revisará cómo se cumple el contrato, hará el seguimiento sobre si se cumplen correctamente las condiciones lingüísticas, y adoptará al respecto los acuerdos precisos y dictará las instrucciones necesarias.

OBLIGAZIO IZAERA

Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera izanen du Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

CARÁCTER OBLIGATORIO

Las condiciones lingüísticas establecidas en este pliego de condiciones tendrán el carácter de obligación básica a los efectos de la Ley Foral 6/2006, de Contratos Públicos de Navarra, y en consecuencia tendrá los mismos efectos que el incumplimiento del resto de las condiciones, la aplicación sistema de penalización o la resolución del contrato.

**17 – KONTRATUAREN INTERPRETAZIOA.**

Baldintza administratiboak interpretatze-rakoan sortzen ahal diren zalantzak Udalak ebatziko ditu, eta berak hartzen dituen erabakien kontra jartzen ahal dira Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko Foru Legearen 333. artikuluan ezarritako helegiteak.

**17º) INTERPRETACIÓN DEL CONTRATO.**

Las dudas que pudieran surgir en la interpretación de las condiciones administrativas se resolverán por el Ayuntamiento, pudiendo interponerse contra sus acuerdos los recursos establecidos en el artículo 333 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra.

Lesaka, 2015eko martxoaren 24a

Lehenbiziko alkateordea, jarduneko alkatea,

Lesaka, 24 de marzo de 2015

El primer teniente de alcalde y alcalde en funciones:

LESAKAKO UDALA – AYUNTAMIENTO DE LESAKA

TOBERA MUSIKA IHARDUERAK, S.L.L.
C.I.F. B-3185580
Plaza Berria, 4
31770 LESAKA (Nafarroa)

Severiano Txoperena Matxikote